

Jon Maiak gaur emango du berbaldia liburutegian

Pasa den astean ezin izan zuen etorri ' Apaizac Obeto ' -ri buruz berba egitera

E. Goienetxea

Jon Maia bertsolari eta idazle zumaiarrak gaur egingo du berba Apaizac Obeto espedizioari eta liburuari buruz, Bermeoko Udal Liburutegian, 19:30-ean.

Pasa den astean zen etortzekoa Bermeora, baina kontratazio enpresagaz gaizki ulertu bat izan ostean, beste hitzordu bat zuela-eta ezin izan zuen hitzaldia ematera etorri. Liburutegian hainbat lagun geratu ziren Maiaren berbaldia entzuteko gogoz, eta antolatzaileek hurrengo asterako zehaztu zuten hitzordu berria bertsolariagaz.

Apaizac Obeto liburua itsasoz Kanadara egindako bidaiaren kronika da, duela urte asko arrantzaleek egiten zuten bidaiaren berbizipena. Berba egiteaz aparte, bidaiako irudiak ere erakutsiko ditu Maiak berbaldian, proiektore baten laguntzagaz.